

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

1. a. erreminta. *Ikasleak.*

MARKO KONTZEPTUALAK KONPARTITZEN

A) Bete ezazue erreminta talde txikian adosturiko emaitzekin.

Neska-ikaslea

Mutil-ikaslea

BAIEZTAPENAK	Emakume-kopurua: ...				Gizon-kopurua: ...			
	KONTRA	ADOS	KONTRA	ADOS	KONTRA	ADOS	KONTRA	ADOS
1. Gure zentroan elkarrekin bizitzen ikasi egiten dugu irakasleek ezartzen dituzten arauak betetzen ditugulako.	1	2	3	4	1	2	3	4
2. Ikasle bezala zentroan ez dugu inolako erantzukizunik, zentroa da, elkarbizitza txarra izanez gero, irtenbideak proposatu behar dituena.	1	2	3	4	1	2	3	4
3. Zenbait pertsonak molestatu egiten dute eta eskolak ordenan eta lasai ematea oztopatzen dute. Hauxe da arazo bakarra.	1	2	3	4	1	2	3	4
4. Neska eta mutil batzuk nahi duten guztia egiten dute, arauak errespetatu gabe. Giro txarra sortzen dute eta gero gela osoak larrutik ordaindu.	1	2	3	4	1	2	3	4
5. Zentroan ikasleek eta irakasleek elkarbizitza-giro positiboa zein errespetuzkoa nola sortzen den gaiari buruz hitz egiten dugu, eztabaidatu eta irizpideak konpartitu.	1	2	3	4	1	2	3	4
6. Gure zentroan giro ona dago eta gatazkak ditugunean hitz eginez konpondu egiten ditugu; ez dugu sekula ere indarkeria erabiltzen.	1	2	3	4	1	2	3	4
7. Zentroko ikasleek uste dugu elkarbizitza-arauak irakasleekin eta familiarekin batera eratu beharko genituzkeela baina ez digute proposamenik luzatzen ezta horretarako aukerarik ematen ere.	1	2	3	4	1	2	3	4
8. Zentroko pertsona guztiek elkar errespetatu eta zaindu egiten dugu. Ongi konpontzen gara elkarren artean eta gatazkaren bat daukagunean konpontzen saiatzen gara eta horrela elkarbizitza hobea eratzen ikasten dugu.	1	2	3	4	1	2	3	4
9.	1	2	3	4	1	2	3	4
10.	1	2	3	4	1	2	3	4

Beste baieztapenik gainera dezakezue.

B) Galdesorta bukatu eta gero, oinarritzotzat jotzen dituzuen hiru gai aukeratu. Azpimarratu nahi duzun ideia era positiboan eta guztiz argi gera dadin, esaldiak berriatzi.

1^a

2^a

3^a